

KIRRU
eta
ALDAPEKO
SAGARRA

(EUSKO JAURLARITZAKO HESKUNTZA-SAILAK ONARTUA, 82, 10, 15)

Felix Zubiaga

KIRRU

eta

ALDAPEKO

SAGARRA

KIRRU

eta

ALDAPEKO

SAGARRA

Marraskiak : **Jesús Antonio Ruiz**

KIRRU

eta

ALDAPERO

RAFAELA

Ibaizabal Argitaldaria
Lauaxeta - Pasiotarrak
Euba - Urrutiz. 673 04 86 - 673 18 50
Dep. Leg. BI.- 2.177 82

Kirru mutikoa Aldapeko sagastira doa. “Ez zaitez urrun joan”-esan dautso Aititak Kirruri. Aitite makuluaz eta astiro ibiltzen da. Kirru, gelditu barik, bedartzan saltoka, sagasti barreneraiño joan da mitxeletearen atzetik.



Aldapeko Sagarraren adarraren puntan, txoriek “txiruli” kantatzen dagoz eta Kirru txorien abestiak entzuten gelditu da. “Ene! Ze polita”-esan dau Kirruk eta luzaroan, txorien kantuak zoragarritu egon da. Sagarraren handia eta txirularien txikia ohartu dau.

—Geroago Aititegana itzuli da eta:”

—Aitite,-esan dautso-, zer darabile txoriek Aldapeko Sagarraren adarraren puntan, beti “txiruli eta txiruli”?

-A, bai! Kantu zaharra dozu ori -erantzun dautso Aitetek.- Ez dakizu arako:

“txiru-liru-li, txiru-liru-li,
norentzako izango ete da
soinutxu hori? ...”



II

Txoritxoen bat belarritik sartu bailitxako, Kirruk txirulika baten igaro da gau guztia. Beti itaun bardiña egin eta egin: "norentzako izango ete da soinutxu hori?"




Eguzkigaz jagi eta Amak oinetakoak lotu orduko, Kirru arrapaladan joan da Aldapeko sagastira. Ointxoak salto eginten dautsoe bedartzan, biotzak dun-dun kolkoan eta "neuretzako, neuretzako -esaten dau ahopetik- neuretzako izango da soinutxu hori".

Aldapeko Sagarraren andarraren puntan, bat, bi hiru, lau, zortzi, hamaika ... txori dagoz. "Soinutxu bat arrapau behar dot" esan dau Kirruk eta Sagarrera igoten hasi da. Kirru adarretan gora ikustean, txoriek furr eta farr egaz egin daue basora. Adarrean ez da gelditu ez txoririk, ez soinurik.

Etxera etorri danean, oraindino dun-dun egiten dautso biotzak Kirruri.

—Aitite, nik txorien soinutxu hori gura dot -esan dau Kirruk.

—A, bai e? Joan eta heurai eskatzea baino ez daukuzu -barre egin dautso Aititak Kirruri.



KIRRUREN KOPLAK



Txiru-liru-liru,
txiru-liru-li,
zer dabizu, Kirru
mutiko argi?

Aldapa-Aldapeko
sagarraren puntan,
Kirru eta txoriak
dabiz ikasketan.

Egotxorik ezean,
odeietan Kirru,
txoritxoaren leian
ameska dabilku.

Txiru-liru-liru,
txiru-liru-li,
zer dabizu, Kirru
mutiko argi?

Sagarra, ikasgela,
olgetan-benetan,
ikastola egokitu
txorien etxean.

Aldapeko Sagarrak
bai adar handiak!
Aititaren eskolak
bai harrigarriak!

Txiru-liru-liru,
txiru-liru-li,
zer dabizu, Kirru
mutiko argi?



III

Kirruk eguzkia leiotik kanpoan ikusi dau eta gozaria jan orduko, jesarlektik jagi da.

—Nora zoaz, laztana, gozaria jan baino lehen? -esan dautso Amak.

—Aldapeko Sagarraren adarraren puntako txoriei erreka doa eroaten noa.

Esnea zurrut egin eta ogi zatia jaten joan da Kirru. Aldapeko Sagarraren aurrean gelditu da. Ez dautso ikuturik egin, txoriak aldendu ez daitezzen.



Sagarra handia da, garria lodia dauka eta besoak luzeak, alde guztietara zabaltzen dauz. Dana orritsu dago. Kirruk txorien etxea dala, uste dau. “Ni zure laguna naz -esan dautso Kirruk Sagarrari- emongo daustazu zeure soinutxu bat?” Txoriek isildu egin dira, Kirru berbetan asi denean.

Handik apur batera, Kirru barrero isildu danean, txoriek kantetan jarrai daue: "txiruliru-li ... norentzako izango ete da soinutxu hori ... "Kirruk atzamartxoaz eta begiaz keiñuak egiten dautsez, bera begira daukeela, adierazteko. Gero "neuretzako, neuretzako, neuretzako" gero ta ozenago esaten hasi da eta txoriak igez egin dautsoe basora.

—Aitite, eskatu eta be ez dauste emon -Kirruk musturtxoak luzatu dauz.

—Ez e? Konponduko doguz txoriok.

IV

Amak gelako leioak izten dautsoz Kurruri, eguzkiaren keinua ikusi eta goizegi jagi ez daiten. "Ez egin kasorik oilarrari! -esaten dautso.- Egin lo, mutil handi azteko".


Aitak Aldapeko sagastira bidean ikusi dau Kirru eta "zertan zabiz hortik bedarrak zapaltzen? -esan dautso.

—Ez dodaz zapalduko, Aite...



Kirruk ointxoak gora jasotzen dauz, bedarrak ez zapaltzarren. Sagarraren adarrik ere ez dau mogidu, txoriak ez uxatzarren. “Ba dakit zer egin” esan dau bere artean. Kirruk isil-isilik Sagarrera igon dau, burua orri artean estaldu eta txoriak datozenean, dapa, eskuaz arrapatea uste dau.

Etorri da txori bat, alakoen baten, eta etorriaz batera, bere azpian hiru soinutxu zutundu dira “pio-pi, pio-pi-, pio-pi” joten eta dantzari.



—Zure “soinutxuak” dira? -Kirruk lenengoz ikusi dau txori-abia, txori-amea ikaraz joan da.

Begien eta eskuen aukerarako, gorago igon dau. Adarraren urkuluan, ohetxo biribilean, isil-isilik eta kukubilo gelditu dira soinulariak.

—Ene! Egin pio-pi, egin dantza -Kirruk txori-kume bat eskuetan hartu dau.

Sendia

A-a-a
hara gure sendia:
besteak nausi eta
ni etxeko umea.
A-a-a
hara gure sendia.

E-e-e
sendia dot nik maite:
aita, ama, aitite,
danak dagoz nire alde.
E-e-e,
sendia dot nik maite.

I-i-i.
Txikiena ni beti,
aita bat eta ama bi,
aitite iru ta lau ni.
I-i-i,
txikiena ni beti.



O-o-o,
bizi gara ederto,
laster aur bat izango
neu baiño txikiago.
O-o-o,
bizi gara ederto.


U-u-u,
nire izena da Kirru,
Aitite dot nik maisu,
ta txori-txiru-liru.
U-u-u,
nire izena da Kirru.

V

Kirru arnas-oska etorri da Aldapetik eta poz-bitzetan diñotso Aititeri:

—Emon dauste, Aitite, ikusi: “pio-pi” joten daki; neuk ikusi dot-Kirruk esku barruan dakarren isilekoa erakusten dau.

—Ene ba! -burua mogidu dau Aititek.- Baina hori txori-kumea dozu, laztana. Abian bertan itzi behar dozu harik eta lumaz jantzi arte; otzez ilko yatzu bestela.



Kirruk begiak ilundu dauz “soinutxua” bere abira eroan behar dauela, esan dautsonean.

—Bai ba- bein da barriz dinotso Aititak.-Horrek “pio-pi” baino ez dakitzu oraindino. Zelan ikasiko dautzuz bestela, Aldapeko Sagarraren adarraren puntako txiru-liru guztiak?

Kirruk Aititeren esana egin dau. Bere “soinutxuari”

pa emon eta ohetxo biribilean, beste anaitxoan berotasunean, itzi dau. Laster txori-amea etorten ikusi dau, pikuan jatekoa dakarrela, eta bere kumatxoeri jaten emoten.



Sagar gainera
igon naiteke
eskutxoekin,
baina zerura zelan
ego barik?

Soina ta ahalmenak

Txoritxo lagun,
prestauko zeunkit
joan aal naiten egaz
zerurat?

Amesak dozuz
egoen ordez,
eskerrak heurai
joan zaitezke egaz
noranahi.

VI

Kirru luzaroan txoriei begira gelditu da. Txori amea errekadoaz datorren bakoitzean, hiru soinutxuak “pio-pi, pio-pi, pio-pi” soinulari hasten dira eta zein baino zein zutuniago dantzatzen. Eta txori-amea doanean, isilik kukubilotzen dira abi-barruan.

Eguerdiko aize apelak, Amak legez laztan egin dautso Kurruri matrailean eta hantxe, Aldapako Sagarraren adarren azpian, kerizpeko bedar gainean, loak hartu dau. Bedarra apatz-apatz dago eta amesak aidean darabile Kirru. Orduan basoko txoriak etorri




eta, inguruan egazka, kantari hasi yakoz: papargorriak, ego-urdiñak, luma-ñabarrak, piku-luzeak eta danetarikoak “Aldapeko Sagarraren” abestiari ekiten dautsoe:

Txoriek banaka, binaka, hiru eta launaka, gero taldeka, alkarren lehian (sagastiko bedarrak, aizeak bultz egitean, legez) abesti zoragarriaren ahapaldiak eta errepikak bilin-balaka nastetan dauetz. Kirru lotan eta irribarrez dago, txori guztien soinuak oraingoan bereak direlakoan.

“Aldapeko Sagarraren adarraren puntan,
puntaren puntan,
txoria dago kantari:
Txiru-liru-li, txiru-liru-li,
norentzako izango ete
soinutxu hori ...?”



Txoria ikastolan



Txoritxu batek
ikastolan
ikasi ei dau
txistuetan.

Txoritxu txiki
soiñulari,
zeu zara gure
txistulari.

Txoritxu batek
txiru-liru,
ikasi ei dau
kanta-soiñu.


Txoritxu laztan,
jo soinua,
dantzatu daigun
binakoa.

VII

—Non ete dago gure umea? -esan dau Amak bazkal-orduan, Kirru mahaian falta dala, ikustean.

—Ez zaiteze arduratu; ba dakit non egongo dan -Aitite, makulua hartu eta tarraka-tarraka sagastirantz mogidu da.

Aititek sagastiko bedartzan bedar zapalduen lorratzak aurkitu dauz. Lorratzetara jarraitu eta jarraitu, Kirru Sagar handiaren ondoan aurkitu dau, esku biekaz sagar enborrari (Aitaren garraiarari legez) oratzen dautsola. “Kirru!-dei egin dautso Aititek eta Kirruk, erdi amesetan burua jaso eta “neuretzako izango da soinutxu hori” esan dau. Aititek besotik oratu eta zutundu egin dau.




- Bazkal-ordua da; Ama begira daukazu.
—Eta nora joan dira txori guztiak -Kirruk Sagar gainera begitzen dau.- Basoko eta Sagar gaineko txoriek soinutxua agindu dauste neurei ...
—Jakiña! Eta azpabe heuretariko bat kaiolan sartuko dogu, eta ikusiko daue orduan ...
—Aitite, zer da kaiola ...?

VIII

Aititek ganbaratik kaiola zaharra jatxi dau. Honez gero zure soinutxu hori naiko jantzita egongo da eta, egaz egin baino lehenago, hementxe gordeko dozu-esan dautso Aititek Kirruri.

Kaiolak goitik behera eta egaletik egalera burdinariak daukaz, atetxo bat, klask idegi eta izten dana eta barruan batetik bestera zotz bi.




—Honek txoria, Sagar adarrean legez, kokatzeko dira -esan dautso Aititek.

Baina zer zan toki estu ha Aldapeko Sagarraren adarren zabalararen ondoan?

Aititek dana azaldu dautso:

—Kontuz eskegi adarretik, Katu nabarrak jan ez dagian.


Kirruk oroldiaz eta oilo-lumatxeaz oetxoa eratu dau, Sagarrera igon eta “hementxe egongo zara polito” soinutxuri heldu eta barruan sartu dau. Soinutxuak goekin pla-pla egin dau, kaiolatik urtetearren. Kirruk



atea itzi dautso eta hantxe katigu “txio” eta “txio” ekin dautso negarrez.

Amea etorri danean, lenengotan ezagutu be ez dau egin bere kumatxo. Bakarrik beste biari ondo jaten emon dautsenean, kaiolakoaz arduratu da eta burdinari-artetik pikua sartu eta jaten emon dautso.

Eguerdi-osteko aize apelak jo dauenean, Kirru biaramoneko amesa ikustearren, bedartzan etxun da. Txorien kantu zoragarria barik, zer ikusi dauela, uste dozue? Bua! Katu baltza Sagarraren adarretatik zehar txori guztien jasarrion kaiolako bere "soinutxua" sare-artetik arrapau gurarik marraoka. Kirruk, harri bat hartu eta "ale hortik" deiadar egin dautso eta orduantxe itxartu da amesetatik.



IX

Bart ere, Katu nabarraren marraoak iratzartu daue Kirru ohean. Egia ete zan katu nabarraren amesa?


Urrengo goizean beste egunetan baino dun-dun bizkorrogoa egiten eutson biotzak Kirruri. "Hor dago, bizi da" esan dau Kirruk, soinutxuaren "txioa" entzun dauenean. "Bakarrik dagolako, negar egiten dau. Beste anaietxo bat ipiniko dautsot ondoan, poztu daiten."

Kirruk, Sagarrera igon eta berba egin dautsoe:

—Zuetatik nork egingo dautso lagun nire soinutxuari?

Eskuetan bat hartzera joan daneko, hareik, furr hona eta farr hara alde egin dautsoe, batak Sagarraren andarraren puntara eta besteak beheko adarrera.

—Ez zaiteze joan daiadar egiten dautse Kirruk.



Kirru adar batetik bestera txorikumeak arrapau gurarik dabil (erainegun amesetako Katu nabarra legez), baina bai zera. Nork igon Sagarraren adarraren puntaraiño? Beheko adarretan ezkutatu danari ekiten dautso Kirruk.

Adarrak astindu eta txorikumea bedartzan jausi da. Bedarrak handiak dira, Kirruren begien pareraino eltzen dira. Kirru, txoriaren atzetik, bedartzan oztopatuz, jausi egiten da eta txoritxoak, furrust hona eta farrast hara gero eta urrunago igez egiten dautso atzamar puntetatik.

—Aitite, txoriek ez daue egon gura kaiolan - esan dautso Aititeri iluntzean.

—Ori esan! Txoriak aidean libre biziteko dozuz, izan be ...

—Ba nik arrapetan badodaz ...

Soinaren baldintzak eta ahalak

Egotxorik baneunka,
egaz egingo neunke;
txoritxua banintz,
aidez joango nintzake.


Nik ez daukat egorik,
beraz,
nik ezin daiket egin
egaz.

Egotxorik baneunka,
egaz egingo neunke;
txoritxua banintz,
aidez joango nintzake

Nik ez daukat pikurik,
baina,
halaz ere ba daiket
kanta.

Egotxorik beneunka,
-pikutorik ez daukat-;
egaz ezin dot, baina
txistu-kanta bai beintzat.

Txoria



Txoria,
txiru-liru-la,
txoria
kantuz ari da.

Toriak,
txiru-liru-la,
erron dauz
arrautsatxuak.

Txoriak,
txiru-liru-la,
egin dau
abi apatza.

Txoriak,
txiru-liru-la,
azi dauz
txorikumeak.

Txoriak,
txiru-liru-la,
daroaz
egun alaiak.

Txoriak
txiru-liru-la
Jaunari
goratzarreak

X

“Lotan dagozela arrapatuko dodaz” erabagi euan orduan Kirruk. Hagaitik goizean Kirru bestetan baino goizago itzartu da Aldapeko Sagarrera joateko. Zaratarik egin gabe, orririk mogidu barik, buruaz kuku egiten dauela, Kirruk abira daroa eskua. Dast egin dau eta uts! Abia utsik dago, inoiz baino biribilago,




azaletik oroldiaz eta bedartxoez josia, barrutik lumatxa finaz egokitua. Kaiolako bere soinutxua, hinoiz baino tristeago, txio eta txio negarrez eta deika.

—Ez zaitetz bildurtu, neugaz zagoz eta -sudurtxoa sareraino urreratu dautso Kirruk, soinutxuak uste ona

euki dagian. Baina soinutxuk, ikaraz, kaiola-beste aldera igez egin dautso.

Txoriamea, ahokada janaria pikuan dakarrela, etorri da orduan eta hantxe adarraren puntan, bira batera eta bira bestera, urduri dabil “kendu hadi hortik” protesta bailebil. Kirru sagarretik jatxi da eta, orduan amek kumeari ahotik ahora jaten emon ten hasi yako.



“Soinutxuk ez dauz gura nire mosuak, baiña bere amarenak bai” esan dau Kirruk bere artean.

—Aitite, txorikumeak non egiten daue lo? -itandu dautso Kirruk Aititeri, gosetu eta etxera etorri danean.

—Txoriek lumatzen direnean, edonun: bardin sasia edo zugaitzean, soinean daukelako berokia. Jainkoak dauka heuren arduera bai ...

XI

Kirruk, amagaz "Gure Aita" errezau eta oheko estalkipean sartu danean, txoriak daukaz gogotan. "Txoriek ez daukee etxerik biziteko, baina Aldapeko Sagarraren adarraren puntan, bai polito abesten dauela! Ez daukee ohetxorik lo egiteko, baina bai luma bigunak aldean, otzitu barik edonun lo egiteko ..."

Gero Soinutxugaz berak, Kirruk, egiten euan bereizkuntza ohartu dau ...

Kirruk osterā ere, bart Katu nabarraren marraoak entzun dauz, ez daki benetan ala amesetan. Kirru oheko estalkiekin burrukan ibili da, kaiolako burdinsareak bailitzaz eta bera katigua.

Amaren goizeko mosuak hartu eta, sagastira



olgetan joan daneko, Kirruk Katu nabarra Aldapeko Sagarretik saltatzen ikusi dau.

—Ee! Ee! -agirika egin dautso Kirruk.- Zer dabizu hortik, lapur handi hori?



Soinutxuren txioa entzun dauenean, bai poza!
“Hemen naukazu, laztana”


Kirruk Amaren berbak esan dautsoz, baina Soinutxu ez da ixiltzen. Bera pozteko, zer egin ez dakiala, Aititek esana gogoratzen dau.

—Ez dozu kaiolan bizi gura? Aidean libre ibili gura dozu-Kirruk kaiolako atea idegi dau.-Zoaz ba zeure anaitxoekin.



Soinutxuk askatasuna aukeratu dau; “txio-txi, txiotxi” pozkorra esan dautso aidean doala, “eskerrik asko zuri”, esan gura baileutso. Soinutxu lenengo Aldapeko Sagarraren adarraren puntaren puntan kokatu da, gero egoak indartsuago astinduz, basoraino askatasunera egaz egin dau.

Zugaitza liburu



Zugaitza orlegi-orlegi,
liburu handi,
orriak daukaz zabalik:
irakur daidan
zugatzean.

Zugaitza orlegi-orlegi,
txoritegi,
orriak daukaz eskegi:
irakur daidan
zugatzean.


Zugaitza orlegi txorien
ikastola,
txiki ta handien ikas-gela:
irakur daidan
zugaitzean.

XII

Soinutxu aldendu denean, Kirru triste gelditu da. Penak arintzeko, Sagarrari garririk eldu dautso eta haren gerizpean etxun da. Loak hartu dauenean, harrigarria, txori danak etorri yakoz basotik, harako amesetan legez kantari, Aldapeko Sagarraren adarraren puntako txiruliak abesten. Heuretan Soinutxu ezagutu dau Kirruk. Zoragarria! Soinutxuk beste txorien antzera "norentzako izango ete da" kantetan ean.

—Aitite, Soiñutxu egaz bota dot ...-Kirruk burua baikor mogidu dau.

—Ondo eginda! -txalotu dau Aititek Kirru.-



—Eta txoriak egaz zeruraino joaten dira?

—Heuren zerua basotik odeietarainokoa dozu -Aititek buruan laztan egin dautso Kirruri.

—Eta Katu nabar hori ez da zerura joango! -Kirruk asarre-begiak erakutsi dauz. Zergaitik ibili behar dau beti txorien atzetik?

—Uu! Txorien txiru-liruak ez yakoz bat bere gustetan horrerri!

—Niri bai, ene! -Kirruk, begiak itzi eta une batez, amesetan lez gelditu da.

Kirru, aoherako ordua baino lehenengo, loguraz dago. Amari samatik oratu eta mosua emoten hasi da. Kirruk, Teleikuskina barik, txorien zeru zoragarria ikusi gura dau eta harein abesti zoragarriak entzun.

Gaueko izartxoak ames-zeruan laster keinuka, egun argizko jokuak baiño ditziratsuagoak antolatu dautsoez Kirruri ohe epelean.

XIII


Honez gero, Amak ez dautso esaten Kirruri “nora zoaz” edo Aititek “ez joan urrun”, edo Aitek “ez zapaldu bedarrik”. Danak dakie etxean Kirru Aldapeko Sagarreko txoriekin bakean dabilela. Goizalean, Kirru baino lehenago, txoriak bakarrik joaten dira aldapeko Sagarrera.

—Agur, Soinutxu -deiar dar egiten dautso Kirruk, Soinutxuri bereziki, heuretariko bat Soinutxu izango dalakoan.

Baina nork igarri orain zein nor dan? Lumatan eta kantuan danak bardiñak emoten daue txori aite-ameak eta txorikumeak.

Kirruk, heuren laguntxoa dala adierazten emoteko, berak be “txiru-liru” abesten hasi da, baina txoriek ez

daue beragaz abestu gura. Heurak isildu egiten dira, bera kantatzen hastean eta. Zer egin? Sagarraren adarrean ahal danik punteraiño igon, besoak, egotxoak bailitzaz, mugitzen asi, eta “txoritxoaz naz” esaten dau. Ai ene! Adarrak azpian krak! Eskerrak



esku bata bizkor erabili dauela eta goiko adarrari oratu! Apur bategaitik ez dau egin punbala. “Egorik ez daukat eta ...” esan dau Kirruk bere artean.

—Aitite, Aldapeko Sagarraren adarraren puntuaren puntara txoriek bakarrik igon daikee? -Kirruk begitxo batz keinu egin dautso Aititeri.

—Pruebarik egin dozu ala? -Aititek beste begiaz keiñu egin dautso Kirruri.

—Harexek adartxoak krak egin ez baleust ...


XIV

Kirru, baserrian bizi danez, Aldapeko Sagarrean dauka Ikastolea. Kirruk ez dau esaten goizero "Ikastolara noa", baiña Aldapeko Sagarra beretzak Ikastolea legez da. Hantxe daukaz bere laguntxoak: txoriak, hantxe andereñoa: aldapeko Sagarra, eta liburuak orriz beterik adarretan, lorez eta xomorro biziz beterik: matxingorringoak, matxinsaltoak, mitxeletak, etabar. Danak margo bizietan eratuak.

Sagarraren orrietan irakurten dagoela (hizki barik, oster) beste lezino bat ikasi dau Kirruk: pospola halakoak mortxaka idoro dauz orri artean. Aila eta guztiko posporrotak, edo botxoka egiteko bolatxoak.



—Aitite, Sagarrean topau dodaz -Kirruk Aititeri erakutsi dautsoz pospoletak




—Horrek sagar-potinak dozuz, laztana. Orain potinetan hartzen badozuz, zelan gura dozuz gero handitan jatea? Ez zenduzan hartu behar ...

—Aitite, honek sagar-kumeak dira ala?

—Bai, baiña ego bakoak eta astiro handitzen direnak ...

Ikastolan (Aldapeko Sagarrean) ikusia, etxean Aititek erakusten dautso Kirruri eta Kirru jakituriz eta edertasunez azten doa.

Euskalerrria



Euskalerrrian bizi naz,
 bizi naz ta maite dot,
 maite dot gure jendea,
 gure jendea gu danok.

Euskalerrrian sakonak,
 sakonak dira ibarrak,
 ibarrak eta kondairan,
 kondairan haren zadorrak.

Euskalerrriko mendiak,
 mendiak dira handiak,
 handiak haren arazo,
 arazo negargarriak.

Euskalerrrian euskera,
 euskera gorde behar dogu,
 behar dogu, dalako bera
 urrezko bitxi-sekretu.

XV

Eguzkiak izpien indarrez azi eta heldu egin dauz sagastiko bedarrak eta Aitak korainaz ebagi dauz.



Orain Kirruk ez dauz oinetakoak bustiten goizeko garoaz. Beiak, idiak eta astotxu Txikik bedarrak lore txikiekin naste jan dauz.

Kirruk Aldapeko Sagarrari bere kumeak itzuli dautsoz, "ez dautzuk geiago kenduko" agindu dautso. Baina non itzi? Aldapeko Sagarrak besoak bai, baina eskurik ez dauka eta sagar-potinak ez daukee ia ailarik. "A bai! Txori-kumeek utsik itzi dauen abian,

antxe egongo dira polito"-erabagi dau Kirruk.



Kirru beste potintxoie laztanak egiten egon da gero luzaroan. "Bat, bi, hiru, lau, bost ..." eta geiago zenbatu dauz, baina hain dira asko Sagarraren potinak!

Ezin izan dauz zanbatu, ez danak laztandu. Sagar-potin harek laztantzean, txori-kumeen buruaz gogoratu da Kirru. Mutuak ziran, piorik ez euen egiten, baina ba euken halako senidetasunik.

—Asko itxaron beharko dozue, laztanak, handi eiteko -benaz eta Aititaren esanak, gogoratu, agindu dautse Kirruk.—Oraindiño berde zagoze, baina handi egin zaitezenean, helduko zaree.

XVI

Eguzkiak asko berotzen dauenean, Kirruri bekokia izerdiz bustiten yako eta egarritu egiten da orduan. "Ama, ura" eskatzen dautso Amari. Kirruk esku biek edalontzia hartu eta dzanga dana edaten dau. Gero prest dago barriro Aldapeko sagastira joateko.




—Aitita, Aldapeko Sagarraren azpian kerizpe ona dago. Bazatoz?

—Hara arte be ba dago kerizperik sagasti honetan. Zoaz zeu.

—Ez baina, Aldapeko Sagarra gaisorik dago ...

Kirruk Aldapeko Sagar-ondora eroan dau Aitita eta atzamarraz adierazoten dautso: "Han, Aitita, han ..."



—Hori da lehengo batean apurtu zendun adarra?


-Aititek begietara begitu dautso Kirruri, Kirruk buruaz baietz esan dautso.- Ez dautso ardura. Hori kendu eta osatuta dago.

Aititak, makilea lagun, adar igartuari heldu eta klask eten dau. Kirruk poza dariola, Sagar-enborra besarkatzen dau, osatu egin dalako. Halako kalterik barriro ez dautsola egingo, agintzen dautso.

Kirruk adar igartuaren potin zimelduak ikusi dauz eta penaz Aititeri begitu dautso.

—Aitite, eta potinok ez dira sagar handi egingo? Ez eta txori-abian ipinten badodaz be?-Kirruk burua mogitzen batera ta bestera.

—Ez dakizu, txotxo, sagar potinak ez direla txori-arrautsak? -barre egin dautso Aititek Kirruri



Bizidideak

Zirrist eta zarrast,
bedar-ebaiten korainaz.
Nor den segalari,
ezetz igarri?

Txirrin eta txarran,
sega-zorrosten harriaz.
Nor da txorrotzaile?
Gure mutile

Tirikiti-tauki,
oinetakogiñen dabil.
Nor da zapatari?
Ba Joxemari:

Kirrin eta karran,
idiek daroe gurdia,
zein daue itzaia?
Zure anaiea.

Burrun-brun eta txuss,
burrundaran kamioia.
Nor da gidaria?
Gure morroia.


Tiki-tiki-tiki,
makin-idazten poliki.
Nor da idazkari?
Gure Anamari.

XVII

Bart trumoiak jo dau eta euri zaparrada handiak izan dira. Goizaldean eguzkia ez da itzartu eta Kirru bere ikastolara joateko dagola, Amak “ez joan, busti eingo zara eta” esan dautso.

—Ama, bedarrik be ez dago eta; otzik be ez da eta ...

Kirru Aldapeko Sagarraren azpira heldu danean, aize apelak jo dau eta mila ur tantakada buru gainera jausi yakoz Kurruri. “Bota, bota geiago be”-eskatu



dautso euria gelditu danean. Sagarraren euri jokuak poz tuten dau Kirru. Egon ere, Sagarrak busti-busti daukaz orriak eta bardin sagarpotiñak. Eta sagar-potiñak, garo-tanta biribilak gaiñean daukeezela, dizditsu dagoz. “Ze handi egin diran” -Kirruk bere ukabiltxoen eineko ikusten dauz. Esku biek in laztandu, gero bere ahoaren pareraiño jatxi dau beerengo mortxa. Eguzkiak eginiko gorriuneak

matrailen gorrizka emoten dautso sagarrari eta antxe, musturreko lorekondoan, mosua emoten dautso (Amak Kirru berari, matrail ertzean plastikozko jostailuak oi, molde-arrastoa baizen txiki-daukan garitxoari emoten dautson legez). "Honek ia jateko dagoz" susmo dau Kirruk. Handitxoena hartu eta aginekaz kosk egin dautso uste gabe. Txasta-txasta agin artean erabili dau une batez eta mingotza samara heldu yakonean, begiak itzi eta "bua" lurrera jaurti dau sagarra.



—Egia da, Aitita, sagar potiñak zapoa dauakeela barruan? -azalpenak eskatu dautsoz gero Kirruk Aititari.

—Eta jaten badozuz tripalak egingo dautzuez zihur.

—Eta noiz arte eukiten daue zapoa?


—Sagarrak gustora jateko, helduta egon behar daue ...

XVIII

Aldapeko Sagarraren adarraren puntan txoriek ez dauke oporraldirik, eta Sagarra bera ere potinak azten dihardu. Aizea datorrenean barriz, umea seaskan legez, kulunkatzen dauz, txoriek kantetan dautsela. Eta Soinutxuk eta beste oiko txorikumak kantuz abesten dauz heuren ikasaldiak: "txiru-lila, hiru ta bi dira", etabar, etabar.

Sagarraren kerizpeak Amaren altsoa dakartso Kirruri gogotara eta hagaitik, noizean bein loak hartzen dau haren azpian. Arratsaldean, eguzkiak Aldapeko Sagarra zeharka jotzen dauenean, sagar-aleak mortxan urrezko barrea egiten daue, eguzkia kosk eta kask, ditzira jolasean, eta ditzirek Kirruren begiak ziztatzen dauz. Sagarra margo biziz joritzen da orduan, eta sagar-aleak pozez azten eta biribilagotzen dira.

—Aitite, konta eistazu harako "Urrezko sagarraren" ipuiña ...



—“Ba zan bein baten basoan maitagarri bat. Sagar bat eukan ortuan, beste sagarrak ez lakoa. Sagar harek urrezko sagarrak emoten eutsozan eta ...”

Aititak ipuiña besteetan legez, luzatzen eta luzatzen dau, baina Kirruren irudipena ez da aldentzen geroztik Aldapeko Sagarraren adarraren puntako sagar diztiratsuetatik. Aititaren garria ere, urteen pisuaz makurtu, sagar adarrak begitantzen yako Kirruri, sagarren ugariaz beheratzen direnean.

—Aitite, eta maitagarri haren sagarrak Aldapeko Sagarrarenak baino ederragoak ziran? ...

Sagarra



Sagarrak
matrailak gorri,
mamina guri,
txa-txa-txa-
kendu hari atala.

Sagarra
sagarra dindil,
gozo, biribil,
txa-txa-txa-
kendu hari atala.

Sagarra
sagarra niri,
ai ze inbidi,
txa-txa-txa
kendu ari atala

XIX

Aztunaren aztunaz, Aldapeko Sagarraren adarrak, Kirruren eskuen pareraiño makurtzen dira. Sagarrak “eutsi nagizu”edo “jan nagizu” Kirruk ez daki zer esaten dautson. Hagaitik batzuetan Kirru Sagarraren adarrei eusten egoten da, nekatu ez daitezen, eta besteetan, sagar-aleei aginka egiteko griñaz.



—Noiz jan behar doguz sagarrak? -Aititari alamenka egoten da Kirru.

—Txoriek jaten hasten direnean-dirautso Aititek

—Txoriek sagarrik jaten daue, Aitite? -ikara-begiak jazo dauz Kirruk.

—Zergatik uste dozu ba, orren pozkor abesten dauela,


Aldapeko Sagarraren puntan? -keiñu egiten dautso Aititek Kirruri.-Heurak pikuaz zuloak egiten hasten direnean, orduan dozu sagar-sasoia.

Orain Kirruk txorien abestia ezezik, sagarrak ere begiztatu egiten dauz, ea txoriek mokokatu ete dagozen. Eguzkiaren indarra beheratzen danean, eta sagarrak ditzira biribilagoa urtikatzen dauenean, txoriek arratsaldako ekitaldian asten dira. Han dago Kirru, ahoa ideki eta agintxuak erakutsiz "txoriek, jaizue" esaka eta txorien txirulikari berera erantzuten:

"txiruliru-li, txiruliru-li,
norentzako izango ete da
sagartxo hori ...?"



Teleikuskiña



Tele-mele sorgiña,
non don gure ipuiña,
Txanogorri?

Tele-mele sorgiña,
Kirrurentzat ez dona
baliorik.

Tele-mele sorgiña,
ikus-ikuskiña,
leio argi.


Tele-mele sorgiña,
biztu eion bonbilla
euskerari.

Tele-mele erdera,
biztu eion euskeña
Kirrutzori.

XX

Eguerdian Amak sagastitik altzokada sagarra ekarri dau "Honek labean erreta jateko dira" -esan dautso Kirruri.

Kirruk bat eskuratu eta aginkatu gura izan dau.



—Esan dautzut, ume, ez dagozela gordinik jateko-agirika dagitso Aamak.

—Hori bai, Ama, txoriek jana dago eta ...-ohartzen dau Kirruk.


—Bart aizeak lurrera boteak dira.

—Aititek esan eustan, txoriek pikatuak ia gordiñik jateko zirela.

Amak ataltxo bat ebagi eta jaten emoten dautso Kirruri, Kirruk gozo eritsi dautso.

Bazkaritan sagar erreak azukre eta guzti jatean, Kirruk Aititeri begitu dautso.

—Aitite, ez ete da ia Aldapeko Sagarra batzeko ordua? Kirruk Aitite irribarrez ikusi dau eta isilekoen keiñua egin dautso, Kirruk dirautso:-Pisuaren pisuaz Sagarraren adarrak nekatzen dagoz eta txoriek sagar jaten asi dira.



—Ez dauez danak jango -erantzun dautso Aititek.-Eta jango baleuez be, ez zara zeu txorien laguna?

Kirru hitzik barik gelditu da zati baten.

XXI

Itxaron eta itxaron, Aldapeko Sagarraren orriak zurbiltzen hasi dira, haren sagarrak ostera, margorik biziena eta azalik guriena erakusten daue. Heldu egin dira. Uzta-eguna da eta Aitak ganbaratik otarrak jatxi dauz, Amak esku-otxaratxoak daroaz eta Aitite urteen pisuaz, sagar askodun adarra legez, makulu gainera idulita, uzta-lanari begira dago.



Aitak Sagar gainera zurubia jaso dau, Amak beherengo sagarrekin altzoa betetzen dau, “au edertasuna, Jaungoikoari eskerrak” esan dau Amak pozarren begiak dizdiz.

—Ez eizu igon, laztana, jausi egingo zara eta -esan dautso Amak Kirruri.

Kirru otarreko sagarrak zenbatzen hasi da; gainekoak baino ez dauz zenbatu: esku bietako atzamarrak diren beste eta handien handienak aukeratzen dauz.

Aitak eta Amak sagarrak batuala, adarrak burua jasoten daue eta patxaraz arnasa artzen. Jo, zelako nekea kendu dautsena! Amak otzarakada asko bete dauz, Aitak hainbat otarkada iragon dauz ganbarara.




Iluntzerako Aldapeko Sagarra guztiz arindu gelditu da; goiko adarraren puntaren puntan bakarrik sagar ale batzuk dizdiratzen daue oraindino.

—Harek goikoak, Aita?-ohar egin dautso Kirruk Aitari.

—Harek txorientzat. Txoriek be zeozer jan behar daue, ez ala?

Kirruk ontzat emon dau Aitaren eritsia. Gero amesetan sagarrak Aldapeko Sagarreraren adarretatik ganbarara, azken dantza bilin-balatzen eta katean etorten ikusi dauz. Txoria aztoratu, hara ta hona “norentzako izango ete da sagartxo hori” abeska eta abeska, Kirruk isilpetik “neuretzako” erantzuten dautsoela.

Merkatura



Kla-ko, kla-klo,
zaldi-zaldiko;
amak gurdia bete
merkaturako.

Diru saritan saltzen
sagar ederrak;
merkatari erosten
neuri zapatak.

Diru saritan saltzen
esne guriak;
merkatari erosten
neuri jantziak.


Kla-klo, kla-klo,
zaldi-zaldiko,
amak gurdia bete
merkaturako.

Diru saritan saltzen
azak, porruak;
merkatari erosten
neuri gozoak

Kla-klo, kla-klo,
zaldi-zaldiko;
amak gurdia bete
merkaturako.

XXII

Kirru ganbaran sagarrez nahikotu egin da eta gero sagartza-gaiñean etxun da. "Hau edertasuna,




Jaungoikoari eskerrak" Amaren esanak urten dautso uste gabean. Esan orduko, biotzondoan sagutxu batek aginka egin baileutso, jagi eta Aldapeko sagastirantz joan da.

Aldapeko Sagarra txairo eta arindu aurkitu dau, baina adarrak oso muskildu eta bakarti. Orriak bakan eta orlegi bizia galdurik, orbel asko lurretik eta sagar alerik ez adarretan. Adarraren puntakoak txoriek janda.

Kirru errudun sentitzen da. Sagar-ondora joan eta esku biek in laztandu dau:

—Neuk ekarriko dautzudaz ganbaratik - agindu dautso.

Orduan txoriak aldra baten etorri dira eta Aldapeko Sagarraren adarretan ale bat ere ez ikustean, ezertxo abestu barik, txioka saminez joan dira. Barriro Aldapeko sagarra bakarrik gelditu da eta aizea ozkirriz eta mindurazorri aulduak klas-klas mugitzen asi da.




—Aitite, txoriek sagarrak heldu arteino bakarrik abesten ete daue? -Kirruk bere naigabea agertu dautso illuntzean Aititeri.

—Jakiña! Harik eta norena den “soinutxu hori” edo “sagartxo hori” ebatsi arte.

Soinutxuak heurentzat, sagartxoak geurentzat. Ez ete dago ebatsia? Baina joko barria eta lehia barria hasiko da, lore barriak eta abi barriak egiten hasi daitezenean.

—Noiz izango da hori, Aitite?

Udazkena



Azkena, bai azkena,
ez da zekena,
udazkena.

Sagarrak gorri-gorri,
zenbat frutaki!
Udazkenak bete dau
maia janariz.

Orriak ori-ori,
urre irudi,
odol guztia emon
daue gugaitik.

Azkena, bai azkena,
ez da zekena,
udazkena.

Ganbaran dago orain
uztaren poza:
aren fruetatik
dagun goza.


Azkena, bai azkena,
ez da zekena,
udazkena.

XXIII

Urrengo baten “pun-pun” tiro batzuk entzun dauz Kirruk Aldapeko sagasti-inguruan. “Eiztariak dabiz” esan dau Aititek eta Kirruk arrapaladan urten dau sukaldetik. Sagastira orduko, gizon bat eskopeteaz eta txakurra lagun, basoan sartzen ikusi dau. Aizeak aidean darabiz orbela, txoriak bailitzaz eta txoriak barik aizea dabil txistuka “uuii-muii”norbaitekin asarretu bailebil.

Kirruk lurrera makurtu eta eskuetan txori bat jaso dau. “Ene” esan dau. Txoriak odol-unea dauka egopean. Hilda dago. Kirruk hartu dauen biotz-dardara! Bizkortu gurarik, ezpainerata daroa, baina txoritxoak ez dau bururik jasoten, ez egotxorik mugitzen.

—Aitita, ze jasoten yako txoritxo honeri?-negar dagi Kirruk.



—Hilda dago; eiztari hori izango zan.-burua mogidu dau Aititek.

—Baiña zergaitik, Aitite, zergatik?-asarretu da Kirru.

—Ez arduratu, laztana, ez da izan zeure harako “Soinutxu” eta. Barriak jaioko dira, sagardia orri barriz jantzi daitenean.-Aititek txori hila hartu eta sasira jaurti dau, Kirru ohargabetu danean.

—Aitite, aizea Sagarrari orriak kendu eta kendu dabil-malkoak txukatzen dauz Kirruk.

—Aizeak eta otzak, laztana. Ez dozu otzik sentitzen? Nik neguko txamarrea jantzi dot; otzak nauka.

“Soinutxu” gaisoa!

Ai ene, samin-samina!
“Soinutxu” kantari zena,
pun-pun joz berun aztunak
hilotza dago.

Ai ene txori kutuna,
kantu eder, ezaguna;
zelan garbitu zaituan
eiztari gaiztok.


Ai paparreko zauria,
sagar helduen gorria!
Zelan den zure zoria
erruki bako!

Ai ene txori-amea,
zure abiko amesa,
lore-lorean jausia,
txoritxo gaiso.

Ai ama! Ai nire pupu!
Biotza mindu nagotzu,
Soinutxugaitik dolutu,
hilik dalako.

XXIV

Aize otzak agertu dira eta eguzkiak gero eta lo geiago egiten dau. Arratsaldetan ere eguzkia ariñago etzaten da. Aititak ez dau sukaldetik urteten, eguzkiak kuku egiten daunean; sutondoan gelditzen da egun guztian.




Egunetik egunera basoa soildu egin da eta Aldapeko Sagarraren adarrak bilus-bilusik gelditu dira. Kirru larrituta etorri da sagastitik.

—Non dago Aitite? -itandu dautso Amari, Aitite sutondoan ez ikustean.

—Aitite otzitu egin da; itzi egiozu bakean Aititeri ohean dago eta -benaz hitz egin dautso Amak.

Kirru isilik gelditu da une batean, aizearen, txoritxo hilaren, otzaren eta Sagar bilusiaren isilekoa ausnartzen. Baiña nork azaldu einkeon guzti hori, Aititak izan ezik? Isil-isilik Aititaren gelara sartu eta "Aitite, lo zagoz?" itandu dautso.



—Zer jasoten yako Aldapeko Sagarrari?-dirautso Aititek.

—Orri danak jausi yakoz! Txori-abia bakarrik gelditzen yako, baina ia ez dauko lumarik barruan. Sagarra otzitu egingo da, Aitite ...-Kirru penaz dago.

—Eroan zeinkeo neure txamarra, nahi badozu. Zure Aititek laster ez dau bearko ...Txoriak joan dira, orbelak joan dira, Aitita be badoa, laztana ...


—Nora zoaz, Aitite?

—Txoriak euren etxeak daukeez urrunean, ni Jaungokoak niretzat daukan etxera noa.

—Ni zeugaz noa Aitite ...

XXV

Kirru lo dagola, bart edurra egin dau, eta Kirru mundu zoragarrituan itzartu da. Baina non dagoz mendiak, basoa, sagardia eta Aldapeko Sagarra? Atartera urten, edurra eskuetan hartu, “ene” eta poz-dardarez Kirruk Amari dakartso.



—Bota eizu hori sastaira, otzitu egingo zara eta - agindu dautso Amak.

Kirruk ahora daroaz eskutxoak, bere arnasa be lurrun-antzean ikusten da.

Otzitu egin ete da? Kirruk Aititaren txamarrea artu eta edurtzara doa. Edurrak oinpeetan “bra-bra” egiten dau eta bere zapatak edurtzan estaldu egiten dira.

Sagardiko sagarrak, lurra eta zeruakin kukuka dabizela, esan leike eta Kirru heuren jolas-arauak ezin

igarririk. "Non zagoz? Non zagoze"?-itaunka ibili da luzaroan bra-bra edur gainean eta inortxok ez erantzuten. "Ezkutatu egin zara, e? Otzik ez daukazu? Aitita otzak hartuta ohean dago ..."

Ama konturatu daneko, Kirru falta izan da. Aitak edurtzako lorratzei jarraitu dautse eta hantxe,



Aldapeko Sagarraren ondoan, Aititaren txamarra-pean otsak kikilduta, edurrak lilurauta aurkitu dau Kirru.

—Otsak hil egingo zaitu, umea! Zelan urten dozu etxetik halako edurtzaz? -Aitak besoetan hartu eta etxera ekarri dau.

Kirruk ez daki Amari zelan erantzun, ez da konturatzen bidean eta Aldapan zer jaso yakon.



XXVI

Txindortxoak "pit-pit-pit" edurtzan jatekotik ez dau idoro eta "pit-pit" Kirruren atarteraino etorri da. Kirruk eskaratzeraino eroan gura izen dau, baina "pit-pit-pit" txindorrek ez dau sartu gura izan barrura. Kirruk sagar bar ekarri dautso ganbaratik eta lagun egin dira. Txantxangorriak mandioan eta sastegian janaria bilatzen dau eta "pit-pit" agur egiten dautso Kirruri.

Harako edurtza urtu barri egoelako baten, Aitite kutxa baltzean sartu eta eroan euen eta Kirru oso triste gelditu da eta txindortxoaren "pit-pit" agurrari ere oso

tristea eritsi dautso. Aitite il egin zala esan eutsoen, baina nork azalduko dautsoz orain bere ezbaiak, eta nork emongo Aititeren barri.

Txindortxoak “pit-pit” bere ikusalditxoak egiten dauz Kirruren baserrian eta kirruk “ikus dozu Aitite” itauntzen dautso eta txindortxoak “pit-pit-pit” erantzun eta ba doa.



—Ama, Aititek otzik edo goserik eukiko ete dau?-
Kezkaz dago Kirru.

—Zeruan ez dago oztzik ez goserik, laztana; zeruen beti da udaberri-dirautso Amak.


—Eta udabarria zelakoa da?

—Ume txiki bateren antzeko, laztana -Amak mosua emon dautso Kirruri matrailean.

Aitak ganbaratik seaska jatxi dau eta eskaratzean konponketan jardun da. Kirruk seaskari bilin- balan ekin dautso.

—Ama, nik be txikitan kuma honetan egiten neuan lo?

Txantxangorria



Txatxangorria, txindor,
firuli-fi,
sagar gainean tinko
kantuz dabil.

Txantxangorria, txori,
firuli-fi,
bertso guztiak doinuz
dauskuz busti.

Txantxangorria, firuli,
txindor hori,
pozten dihardu beti
Euskalerra.

Txantxangorria, gorriak
pit-pit-pit-pit,
-negu aldean baltzenak-
dauz ikusi.

XXVII

Eguzkiak lotaldi handiak egiten dauz; Kirru ere, Amak bein eta barriz deitu arren, ederto egoten da ohean, Amak behetik goraino jantzi arte. Eguzkiak estalki larregiak daukaz: odei baltzak eta urdinak. Kirru eguzkiak arpegia noiz erakutsiko egoten da, Aldapeko sagarra azur utsetan dagolako. Ez orririk, ez sagarrik, ez abirik eta ez txoririk, triste dagolako.

Baina udabarria ei dator ... Kirruk bere naigabeak eta itxaropenak kontau dautsoz Sagarrari: Aitite geiago ez dala etorriko, zerura joan arte; udaberriaren erreka doa bihaldu dauela.



—Eta Amak ume barria ekarriko dausku -esan dautso Kirruk Aldapeko Sagarrari. Txindorrek orduan bere “pit-pit” minuak itzi eta “txiruliru” luzea jario dau, estarri estarran karameloa urtu bailitxako.

—Entzun dozu ori? -Kirruk Sagarra ukondoaz jo dau.- Ba datoz, ba datoz txoriak; laster etorriko dira. Abi barriak egingo ei dauez eta “norentzako” leloak barriko kantatzen hasiko ei dira.

- Ama, eta txoriak ez dira zerura joaten?
 —Hango txoriak angeruak dozuz, laztana, eta haren kantuak bestelakoak dira.
 —Ez daue esaten “norentzako izango ete da soinutxu hori?
 —Aintza zeruetan Jaungoikari eta bakea lurrean gizonei, esaten daue, laztana.

Gabon-zugaitza



Gabonetako zugaitzak
 zer ekarko ete dausku
 guri saritzat?

Gabonetako zugaitzak
 sagarren ordeiz izarrak
 daukaz biztuak.


Gabonetako zugaitzak,
 kereizen ordeiz amesak
 dindilkariak.

Gabonetako zugaitzak
 madari ordeiz promesak
 daukaz guretzat.

Gabonetako zugaitzak
 dauka Jesusen Biotza
 sustrai-bioztzat.


XXVIII

Kirrueren begi urdinak edozetara harrigarritzen dira. Handiak dira amesetan ikusi dauzanak, politak Aitita zanaren ipuinak eta ez makalak Amak esan dautsozanak. Baina, ganbarako sagarrak legez, danak era batera eskuetan euki gura leukez, laztantzeko, usnatzeko, jateko, eukitearren. Azaletik, kanpotik bizikera bat eta barrutik beste bat ete dabilen dago: Aldapeko Sagarra azur utsetan dago, baina udabarriaren itzaropena dabil. Loreak igartu egin ziran, baina begi-barruan dager haren margoa; Aitite hil egin zan, zeruan ei dago, baina haren gomutapena bizirik dirau Kirrueren biotzean.



Hanartean ganbarako sagar asko usteldu egin dira eta Kirruk sagarrak ez dagola geiago, esan dautso Aldapako sagarrari. Aldapatik, bere naigabea esatetik, etorri baino ez da egin eta etxeko atarte-atartean Kirruk ume txikiaren uee larriak entzun dauz. Arrebatxoa etorri dala, esan dautso Aitak.

—Idoiatxo dozu, laztana -esan dautso Amak, Kirru begiak lauorritu, seaskara urreratu danean.- Ez ikutu, laztana, itzartu egingo da eta.



Kirru Idoiatxori begira egon da une batez eta haren arnasa geldia entzun daueneko, biotzak pozez dar-dar egin dautso. Barre egin dau, Amari mosua emon dautso eta txokolatea eta ogi-zatia mahai-gaiñean itzi eta, arrapaladan urten dau. Aldapeko sagarrari barri ona emoten doa.

—Ba dakizu? Arrebatxoa daukat nik: Idoiatxo da eta dan-dana da egia -Kirru Aldapeko Sagarraren inguru gira eta bira ibili da, dantzaria, berak maite dauenaren inguran legez, beheko adarrei oratu eta dindilika dabil. Sagarren adar zurrinak bizi-dardaraz unkitu dira.



XXIX

Eta egunetik egunera Sagarraren adar bilusiak bipildu egin dira, elgorriaren antzeko motatxoak danetik daukazala. "Ene" Ba zatoze, ba zatoze" Kirruk



eztiki laztan egin dautsee. Kirruk Sagarraren erantzun isila entzuten dau barrutik. Lehen orriz, sagar-potinez eta sagar helduez, orain barriro lorez. Kirruk sudurretara eroan dauz lore zuri-arrosatuak, Idoiaren arpegiaren kolore berekoak. Txorta bar hartu eta Amari eroateko egon da. Baiña, ez! Kirruk Aititaren ikasgaiak ez dauz ahaztu: loreak potina dakarke, portinak sagar heldua. Zelan gura dozu sagar helduak jatea, orain loreak lorrintzen badozuz?

Izadi guztia biotz ikutu eta dardaraz dabil, ez txantangorriak bakarrik.

Hor dabiz elaiak be txirristi-mirristiti sagarpetik eta sagarren gainetik. Eta sagardiko eta basoko zugaitz danen garri zurrinak, beso keldoak aize epeletan, dantza gogoaz zaulitu dira. Apurka-apurka besoak, atzamar-puntak, zangoak, emborra eta burua, soin guztia, eun barriaz jantzi dauez.

—Ama, udabarria nork ekarri dau?-arduraz beterik dago Kirru.

—Jaungoikoak, laztana-matrailean laztan dagitso Amak.

—Eta Idoiatoxoa nork ekarri dau?

—Jaungoikoak, laztana ...

Kirruk zerura begitu eta gizon hori zein handi eta miragarri izan daiteken galderaz dago.

Euskera (Uso zuria)

Kirruk euskeraz txoriei:


“zer darabizu txiruli?”

Kirru beti dabil euskeraz,
amagaz, aitagaz, aititagaz;

Kirruk euskeraz, euskeraz guk,
hagaitik gara gu euskaldun.

Kirruk maite dau euskera,
Kirruk eiten dau euskeraz,
Aldapan, etxean, amesetan,
itxarrik egunez, lo gauetan,
Kirruk euskeraz, euskeraz guk,
hagaitik gara gu euskaldun.

Euskeraz matxingorri,
aro ona eskatzen Jainkoari;
Kirruk auzoko lagunekin,
euskeraz ederto hak hitzegin;
Kirruk euskeraz, euskeraz guk,
hagaitik gara gu euskaldun.



Barre egin daust, ama,
udabarriak;
esan dauste daukala,
ume-arpegia.

Txori bat izango zan,
edo ume bat,
keiñuz neuri leioan
urreratu yat.


Udaberria lore,
bera da ume,
irri, dantza, txorien
abesti luze.

Udaberria, ama,
noiz etorriko?
Zoriona agian
dau ekarriko?

Udaberria lore,
bera da ume,
irri, dantza, txorien
abesti luze.

XXX

Eguzkia zoli itxartu da goizean eta Kirru jagi daneko mitxeletak ikusi dauz leioko loreetan eta elaiak txirristi-mirristiti teilatura doan argi-arian.



Aizeak urrunetik kanpai-otsa ekarri dau. Kirruk jai handia dala, entzun dau. Idoiatxo sagatiko pitxilore-antzeria jantzi daue eta lorea bailitz ura bota dautsoe eleizan burutik behera. Kirruk opil gozoak jan dauz Idoiatxoren bateroa izan dalako. Gozokiak egarritu egin daue.

—Ama, nik sagarra gura dot.

—Sagarak, seme? Loretan dagoz. Eskatu eiozu Aldapeko Sagar handiari.

Kirru Aldapeko Sagarrera joan da. Hantxe, Aldapeko Sagarraren adarraren puntaren puntan harako txori-aldra aspaldiko txiruliru saioetan ikusi dau eta “norentzako” izango ete da soinutxu hori” temaka.



Kirruen buruko ule kirruetan haserako oroitzapenak joan etorri osoa egin dau. Sagar-goserik ia ez dau sentitzen, argiago dakus dana udaberriko argitasuenan. Bakar-bakarrik ez baitxo bat bekoki gaineko kirbil dindilikarian.

—Aitite, ikusten gozuz? Hemen gagoz danok Aldapeko Sagarraren ondoan.—Kirruk eguzkiaren alboan ikusten dan urdinera begitu dau.—Eta zeu zelan zeruko udabarrian?

Koplen aurkibidea

Kirruren koplak	11
Sendia	16
Soina eta ahalmenak	18
Txoria ikastolan	21
Soinaren baldintzak eta ahalak	27
Txoria	28
Zugaitza liburu	34
Euskalerria	40
Bizibideak	45
Sagarra	49
Teleikuskina	52
Merkatura	57
Udazkena	60
«Soinutxu» gaisoa!	62
Txantxangorria	69
Gabon-zugaitza	71
Euskera	76
Udabarria	77

HIZTEGIA

- aila** - 'pedúnculo'
alamenka - 'dando lata'
aldra - 'banda, grupo'
ale - 'fruto'
ahopetik - 'en secreto'
harako - 'de marras'
aztoratu - 'inquieto'
bailebil - 'como si anduviera'
begitandu - 'parecer'
benaz - 'con seriedad'
bereizkuntza - 'discriminación'
berun - 'plomo'
bipildu - 'renovarse'
dirau - 'dura'
dolutu - 'condolido'
erabagi - 'decidir'
ehun - 'pañó'
iragon - 'acarrear'
itzai - 'boyero'
joritu - 'abundar'
lauorritu - 'asombrarse'
lehi - 'competición'
lore-begi - 'capullo'
mandio - 'tejavana'
mokokatu - 'picoteado'
mortxaka - 'en racimos'
otar - 'otzara andi'
ostopatuz - 'tropezando'
pospoleta - 'agallón-juguete'
seaska - 'cuna'
soildu - 'deshojarse'
unkitu - 'causar emoción'
urtikatu - 'arrojar'
uzta - 'cosecha'
zauli - 'flexible'
zeken - 'avaro'
zurbildu - 'kolorgetu'
zurrun - 'yerto'

